

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **82/2021 Mozioa, azaroaren 10ekoa, ETA erakunde terroristako kideei egindako omenaldiak arbuizatzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko azaroaren 10ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

82/2021 Mozioa, azaroaren 10ekoa, ETA erakunde terroristako kideei egindako omenaldiak arbuizatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek baztertu egiten dituzte espetxetik irtendako ETako presoei handikeriz aitortza-ekitaldiak egitera, eta horiek antolatu eta sustatzen dituztenei eskatzen die bertan behera utz ditzatela biktimekiko eta haien senideen minarekiko sentsibilitateagatik, iraganaren memoria kritikoarekiko errespetuagatik, eta bizikidetzatza demokratikoa eraikitzeko zailtasun bat gehiago eta zatiketa-elementu bilatzea ekiditeagatik.

2. Arabako Batzar Nagusiek eskumena duten botere publikoei berresten diete beharrezkoa dela terrorismoaren eta giza eskubideen urraketan biktimei zor zaien aitortza-, egi-, justizia- eta erreparazio-politikak bermatzea. Horretarako, ezabatu ditzatela pairatutako bidegabekeriak zein eragin lekizkiekenak, eta era berean, eurekiko irainak, humiliazioa eta berbiktimizazioa ekidindo duten neurriak har ditzatela

3. Arabako Batzar Nagusiek dei egiten diete erakunde publikoei, alderdi politikoei eta gizarte eragileei ahaleginak areagotu ditzaten, euskal herritarren artean aktiboki sustatzeko indarkeriaren erabileraren deslegitimazioa proiektu politikoen inposaketa totalitariorako baliabide gisa, bai iraganean, bai orain, bai etorkizunean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 10a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**